

A. MALLEAREN ARTIKULUAZ

Fr. Luis Villasante

Antonio Malleak orain baino lehen ere atera izan du lanik **Euskera** gure aldizkarian. Ikus **Euskera** (1982-1), 59-166 (Mogeli buruz).

Geroztik, Fr. Juan de Zumarraga, Mundu Berriko lehen Apezpikuaz ikerketak egin ditu.

Duela zenbait urte, aterea da Fr. Juan de Zumarragak bere herritarrei egindako eskutitzen bilduma: *Zumarraga and his Family. Letters to Vizcaya 1536-1548*; Washington 1979.

Euskera-n agertua da, baita ere, bere eskutitz baten euskal zatia, Detxepareren liburua baino lehenago egina. Ikus **Euskera** (1981-1), 5.

Malleak orain **Euskera**-rako bidali digun Zumarragaren eskutitz hau; bere ohar eta iruzkinekin, berria da edo ezezaguna, eta merezi du, nik uste, argitaratzea. Zuzenean euskaraz edo euskarari buruz ez dator bertan ezer, baina interesgarria da jaun ospetsu honek Mexikotik euskaldunekin eta Euskal Herriarekin mantentzen zituen har-emanak ezagutzeko.

ZUMARRAGA MEXICOKO APEZPIKUAREN GUTUNA URTI ABENDAINORI 1547N IDATZIA

Reno, Nevada, 1988-XI-11

A. Mallea Olaetxe

Muy noble y amado señor hermano nuestro señor sea con vos. V cartas he rrecibido en estos navios con la de la señora de Muncharaz y de su hija Mari Yniguez / y porque esta carabela se parte sola y de priesa y no estado yo de bagar en los primeros navios que partiran en pos della respondere a vuestras cartas y en esta lo que mas haze el caso y ya pienso que abreys rrecibido con Anton Yzardo otras mias.

Lo primero en que yo estoy esperando vuestra determinacion y rrepuesta es en la venida de vuestra hija y con mas calor quisiera que me hubierades rrespondido porque Martin de Aranguren esta muy contento deste casamiento y no menos yo por tener el conocimiento que tengo de su persona y condicion y valor que otra ygual de la nacion yo no he conocido aca y aun fuera della pocas piecas ay tales y en esto no ay por que poner dubda porque tengo larga experiencia y allende que es benditissima persona claro se ve en su manera que ha de valer y vuestra hija sera bien casada y bien aventurada la puedo llamar trayendola Dios con bien y Martin de Aranguren y yo estamos adreçando la casa frontera desta nuestra obispal la calle en medio que de las ventanas nos podemos hablar y no resta mas syno que con la mayor brebedad que podays la enbieys a su esposo y yo hos tengo escrito que podia venir con su mujer de Francisco de Ferrera e su carta yva con la mia que la truxese consigo y agora no faltaran mugeres honrradas que venga[n] con este rrepartimiento que su magestad manda hazer al visorrey ni ay mas que dudar ni pensar en ello syno cerrar los ojos y hefetuarlo con toda brebedad y en esto rrazon es que me creays porque yo no me avia de poner en ello sin estar certificado ser lo que mas convenia a vos y a vuestra hija. Tambien os tengo hos tengo [sic] escrito cercas del trato y compania que hos converna hazer con este vuestro hijo / tan vendito y cuerdo y buen christiano y sino alcanças tanta facultad con lo que pudierdes y sy en mas no os atrebeys o no podeys por no ser tan pratico en las compras a lo menos en las cosas de nuestra tierra no podeys rrecibir mucho engano

como son hierro y hazero y herramientas para las minas y de canteria y de aqui adelante que comencara presto plaziendo a Dios el hedificio desta yglesia cathedral mucha cosa de lo dicho se podra despachar tambien avemos platicado Martin de Aranguren y yo y nos parece que para estos indios seria de mas contentamiento y vendibles camisas de lienzo de nuestra tierra asi de las bastas como de las delgadas largas y no tan largas y cortas y de toda suerte que las sabran hazer las veatas de Durango y a ellas trahereys limosna por su trabajo y a mi parecer abreys provecho y seguramente podeys enbiar hasta doss y tress mill camisas hechas y lo mas presto que podays deveys ynbiar las mas que pudieredes y vos vereys lo que digo asymismo en las mercaderias que ay en Bilbao asy de Flandes como de Ynglaterra Rochela y otras partes no podreys rrecibir mucho engano y mucho de lo que aca pasa traen ay a [de] Vilbao para ganar para vender y rrevender y todos ganan y asy podeys vos ganar como otros asy en panos como en liencos y la mercaderia mas segura y que mas se despacha son liencos rruan olandas y medias olandas y bien que aca llaman a los liencos por curar y cuchillos de *Flandes* y de *Alemania* y en Durango los podeys mandar hazer hechizos con sus bainas sin punta para los indios y mill cosas abra en Bilbao de poco precio que aca baldra y pues teneys aca tal hijo que hos respondera con toda fedelidad mas cierta e probechosa sera la contratacion de aca que la del Peru.

/ La senora de Muncharaz me escribe como Juan Nicolas con sus demandas fribolas y de gran descomedimiento y de poco juicio le haze venir a Valladolid a pleyto y que yo le enbie cartas de fabor para aquellos senores lo qual yo hara [hare] de muy buena voluntad y las enbiare duplicadas con el procurador que esta de camino para yr a la corte por esta yglesia en los primeros navios despues desta caravela y el duplicado os enbiare a vos asimismo en otro navio y gran desatino parece e aun no menor presuncion y fantasia pensar Joan Nicolas alcanzar vitoria en lo que ha yntentado pues allende de ser la casa de la senora que heredo de sus padres es su propio dote e Ynigo de Arracola su marido sabemos bien lo que truxo a la casa, ninguna cosa, ni bienes, ni dinero no le pudo probar a la senora su muger de su casa y bienes dotales por su testamento y es locura pensar otra cosa y quando abra perdido en pleyto lo que podra perder se quedara syn nada con su poca verguenza y de la hija estoy escandalizado y bien dezis y asi me parece que no merece antes seria pecado enbiarle cosa alguna ni darle y mucho holgaria que estuviese efetuado lo de Andres de Araiz [Areilza ordeiz] y segund ban las cosas del Peru temor tengo no le acontezca algun enbaraco o desastre y he holgado de lo que me ha dicho Felipe de Manari que en vuestro poder tiene buena cosa y de todo lo que sobre ello me escribis tengo harto descanso y mucha mayor le tendria sy lo viese hefetuado plega as Nuestro Senor que presto aya conclusyon por el

descanso de la senora y bien de aquella casa y con las alteraciones que ha avido aviendo enbiado tress y quatro poderes y con clerigos ninguna cosa avemos podido cobrar ni aun sabemos en cuyo poder esta la hazienda de Fernando de Algoibar [Elgoibar behar] que Dios perdone todo lo posible se haze y se hara en la cobranca.

/ Las libranças originales que enbiastes en el galeon del señor don Vernardino con un uracan y gran tormenta que le malvarato y quebrarle el mastel todas las cartas que traya se hicharon [hecharon] a la mar y con los traslados andamos con los oficiales entendiendo en la cobranca y pienso que cobraremos dando fiancas que trairemos los oreginales y en los primeros navios se os enbiara lo que se cobrare con lo que aca tiene Miguel Lopez [Legazpi] tanto tiempo ha y no avemos osado enbiarlo antes por temor de los enbaracos que ha avido mas ya nos parece que no conbiene aguardar mas y que no fuese por cosa syno por escaparos de los clamores de los frailes y beatas fray Francisco de Castilla [Castillo behar] me escribe que la renta no faltaria si tubiesen los dineros y que syn ver la moneda ninguno querra salir a poner en venta su hazienda y bien sera que quando estos nabios bayan en buena hora y rrecibays lo que hos yra que bays a Durango a dar horden con el padre fray Francisco de Castillo como aya hefeto mi deseo antiguo y este Felipe Abad de Manara [Mainari behar] que esta aqui en casa porque el cabildo de Tlascala no le quiso adelantar a la canongia y entendemos en que sea rrecibido me dize que unas cassas que eran de su padre que esta[n] junto a la de las beatas son de la yglesia de Santa Ana o de dona Elvira [Otalora] que se podra aver con poco precio para hazer ende la ospederia a poca costa quando vos vays a Durango vereys con el padre fray Francisco lo que se hara y donde mejor estara para descanso de los rreligiosos y beatas y al señor y al licenciado Otalora enbiare declarada mi yntencion para que su merced hordene alla los capitulos con su juyzio y letras y conocimiento y esperiencia que tiene de las cosas de aquella tierra y todo yra a vuestro contentamiento plega a Dios de lo llebar tal en salvamento.

Los librillos y cordones vinieron buenos la silla algo estragada y los sombreros podridos las camisas que me escribistes para los criados de casa hasta agora no se dellas ni en que navio avian de venir los panos menores y las tovallas vinieron buenas y de las toballas quiso su parte Martin de Aranguren e partemos e dixo que la preciaba mas que sy fuera de horo y benga / vuestro hijo mayor con su hermano y aca no le faltara quien le de buena crianca y estudio y ya pienso que verna camino y de mi salud hos hago saber que la tengo entera y hago lo que solya agora quinze e mas anos y este aviento yo solo he predicado todos los sermones en esta yglesia mayor porque el visorrey lo quiso y aun todo el pueblo las doss casullas que enbie para la capilla y hospital de la nacion que enbiaba con Martin de Larramendi natural de Azcoytia muy buen

hombre e mucho mi amigo que murio en el camino yendo a la Bera Cruz y quedaron en la Veracruz en poder de un vizcayno mercader Ynsaustegui y por su negligencia no fueron en la nao de Jauregui y como el señor obispo de Cartagena concertava de yr en aquell navio en mi carta hos escribi que yban con su senoria mas es la verdad lo que su senoria hos dixo y escribió que las petacas heran para Calabacanos las que su senoria llebaba y no para vos holgare mucho en que llegase el portugues Domingos Fernandez con los pinones y liquor que hos llebaba para vuestras enfermedades el es muy buen hombre y muy mi amigo y si avemos de aver dicha de aver algunas plantas para nuestra huerta ha de ser por mendio del que en marineros no ay que fiar de todo lo que hizierdes por el holgare mucho por que es muy fiel y hombre de verdad y yo pienso ponerlo en la huerta y sy Dios la trae con buen recado de plantas el ganara dineros y yo terne consolacion en mi vejez y vuestros hijos gozaran de vuestros trabajos que aveys tomado en ynbiar plantas y he dicho lo que se me ha ofrecido de mas ynportancia syn tornar a ver vuestras cartas y yo las relehere y a lo que mas obiere de nuevo y Nuestro Señor guarde vuestra muy noble persona y tenga siempre de su mano de Mexico veynte y nueve de henero de mill y quinientos e quarenta e siete vuestro hermano orador fray Juan obispo de Mexico (1).

Batzuk badakite Juan Zumarraga nor zen, Mexicoko lehen apezpikua, noski, 1468 inguruan Durangon jaio ta 1548n Mexicon hil zena. Baina nork daki Joan Botikaneko nor zen! Ba, bera. Halan deitzen zioten Durangon, ba bere etxea botika zen, eta anaia zaharrena botikaria. Dozenaka artikulua ta liburu idatzi da Zumarragaz —Bizkaian bertan hiru— baina inork ere ez daki benetako Zumarraga nor zen. Bostehun urte pasa dire ha jaio ezker ta, beraz, ordua dela haren euskaldungoa ilunpetik ateratzeko esango nuke. Badakizue nola idatzi zuen euskarazko lehen gutuna 1537n (2). Ta ez pentsa hori subterez gertatu zenik. Garai hartan Bizkaian eta Nafarroan batez ere euskal kontzientzia bizi bizi zegoen, politikazko sokatira bezala, ta ez da harritzeko Etxeparek 1545n idaztea bere liburua. Zumarragak seguraski karta gehiago ere idatzi zuen euskaraz, baina galduak edo nunbaiten gordeak dagoz. Gaur, hasteko, haren beste gutun berri bat argitaratzen dugu, erdaraz, 1547n Urti Abendainori idatzia (3). Urti hau (Gaztelera Ortuno) Durangon sortu ta Sevillan bizi zen merkatari. Zilbor bikaina ei zuen. Muntzaraz gazteluko alabarekin

(1) Archivo General de Indias, (Sevilla), Justicia 1011, 8, atala, 113r-115v flk.

(2) Enrique Ottek publikatu zuen: "Juan de Zumárraga, vasco", *Les cultures ibériques en devenir: essais publiés en hommage à la mémoire de Marcel Bataillon (1895-1977)*. (Paris: Fondation Singer-Polignac, 1979): 489-96. Ikus ere *Euskera* 26 (2.aldia), (1980): 4-14.

(3) Gutun hau, Renoko Nevada Unibertsitatean egin nuen tesian sartzen da, alegia, *Juan Zumarraga, Bishop of Mexico, and the Basques. The Ethnic Connection*, Ph. D. Dissertation, University of Nevada-Reno (August. 1988).

ezkondua zelako Zumarragak senidetzat zeukan ta Urti bihotz oneko gizona izanik, apezpikua hil aurreko urteetan laguntzaile jatorrena bihurtu zitzaion. Garai haietan Sevillan Urti lako bat edukitzea guztiz protxugarria zen ta batek daki hark zenbat egin zuen Zumarragaren alde.

Gutun hau ulertzeko, Mexicoko egoera kontuan hartu behar da lehenik. Bizkaia urrun zegoen Mexicotik ta gure durangarra, berriz, herri-min. Zer egin? Bizkaitarrak eta euskaldunak ongietorri ta eraman Amerikara. Egin ere horixe egin zuen. Apezpiku etxeetan euskara parra parra, maiordomutik hasi ta azken morroi arte euskaldunak ugari ziren han. Gutun honetan, beste gutunenetan bezala, argi ikusten da Zumarraga ta beste euskalduenen arteko harreman sakon zabala. Kanpotik Gaztel erresumako apezpikua bazen ere —ta horretara ikusi dute idazle guztiak— barrutik bizkaitar ta gogozko euskaldun zela ezin uka. Bere egite ta hitzak nereak baino hobe aitortzen dute errealitate hori. Beraz has gaitzen gutuna aztertzen. Bertan aitutzen diren pertsonak hauek dituzu banan banan:

1. Lehenik, bizkaitarrak alegia, ta hauen artean Muntsarazko andre Kattalin ta bere alaba Mari Inigez. Oraindik zutik dagoen Muntsarazko gaztelua, itzal handiko etxea zen hamaseigarren mendean ta Zumarragak ahaleginak egin zituen bere etxeok Muntsarazkoekin ezkontzeko. Egia esan, ez zen odolez Kattalinen senide hurbileko, ez eta gutxiago ere, baina harekin harreman bakan ta estuak izan zituen. Beharbada gaztetan aixkide izango ziren (hogei bat urteren alde zeukaten), ez dakit. Etxekotasuna batez ere Arrazola bitartez zetorkien, apezpikuaren lehengusu Inigo ta Kattalin senar-emazteak baiziren. Gutunean dio karta bi jaso berri dituela ama-alabengandik. Mari neska txit ederra ei zen, Zumarragak biziki maite zuen, ta Mexicotik bidali zion diruaren eraginez, Antso Larrazabalekin ezkondu zen. Antso Durangoko jostun bat zen, Zumarragaren arreba Marinaren seme, osabari esker Mexicotik zearo aberastuta etorri zena. Horregatik bakarrik ezkondu ziren.

2. Juan Nikolas Ibarreta, durangar izkribaua, ta Katalinen beste alaba batekin ezkondua, gogorki kritikatzan du Zumarragak amaginarreba juiziora eraman zuelako. Kattalinekin bere alaba ere kontra zeukan ta bien artean Muntsaraz kendu nahi zioten. Gure fraidea gertu baino gertuago zegoen Kattalin defenditzeko ta hain ziur zegoen bere influentziaz. Ibarretaren asmoak fantasia hutsak direla dio.

3. Andres Areiltza Rico, Durangon sortua ta Sevillan merkatari zebilena, Kattalinen beste alaba batekin ezkondua zegoen. Areiltza ta Urti bazkide izanik, Peru aldean salerosten zuten.

4. Frantzisko Gazteluko (agirietan de [1] Castillo), fraidea zen ta Zumarragaren auzoko ta aixkide min. Parisen ikasia ta jakintsu, Burgos probintziako frantziskotarren buru egin zutenean, Zumarraga ta biak

elkarri idazten ta laguntzen hasi ziren. Honek hari egindako hiru gutun ezagutzen ditugu, baina gehiago ere izango dira nunbait.

5. Elbira Otalora Juan Bautista Arrazolaren alarguna zela dio norbaitek eta bere etxea Durangoko serorai (Hirugarren Ordenakoak) utzi zuela (4). Gure gutun honetan, ordea, ez dager holakorik.

6. Anton Yzardo (Izardoi?) Enbeltzaren untziko pilotua zen ta euskalduna, antza. Untzi ta pilotu biak hondora joan ziren 1547n ta Zumarragari ere tokatu zitzaion galtzea (5).

7. Felipe Manariko apez kalonjerra zen, baina Tlascalako kabildoak hartu nahi ez, ta bitartean Mexicon Zumarragarekin bizi zen.

8. Fernando Elgoibarko, arotza ta senide, apezpikuaren etxeak erai-ki eta berriztu ondoren Perura joan zen 1539n ta han hil. Zenbait urte geroago, gure fraidea haren ondasunak eskuratu ezinik zebilen, naiz-eta hainbat agiri ta boterak Perura bidali.

9. Matxin Larramendi azkoitiarraz, gizon guztiz ona ta aixkide min zela diosku Zumarragak, baina besterik ez dakigu. Kasuila bi zeramaz-kan honen partez Sevillako euskaldunen kapera ta ospitalerako, baina bidean, Beracruzén hil zen. Baziren beste zenbait giputz Zumarragaren adiskideen artean, Legazpi bat, ezagunena, ta Onatiko Martin Ibanez Hernani, tab.

10. Ynsaustegi (Intxaustegi) bizkaitar merkataria hartu zuen bere gain kasuilen kargu Larramendi hil zenean, baina ahaztu Jauregiren untzian bidaltzea (hurrengo batetan bidaliko zituen, noski).

11. Jauregi, euskaldun untzi jabe ta Zumarragaren aixkide min, hainbat mesede egina zen durangarrari. Haren untzia "oso ona... ta berri berria" zela diosku honek. Hark eraman zuen lehen moldiztegia Ameriketara. Zortzi urte geroago, 1547n, Jauregiren untzia, azpia hartuta, hondatu zen (6).

12. Mikel Lopez Legazpiko ezaguna da Filipinasko kolonitzaile lez, baina gaur arte bere ta Zumarraga arteko aixkidetasunaz ez genekien

(4) Fray Juan RUIZ DE LARRINAGA: *Don Fray Juan de Zumárraga primer obispo y arzobispo de México...*, (Bilbao: Junta de Cultura de Vizcaya, 1948), 72 or.

(5) Zumarragaren gutuna Frantzisko Gaztelukoari, Mexicotik 1547ko Azaroaren 2n: "Ta Enbeltzaren untzi batetan... Anton Yzardo pilotu, hondora joan ei zen, ta merkataria askok galdu dute, ta nik nere partea". Ikus Richard E. GREENLEAF: *Zumárraga and His Family. Letters to Vizcaya 1536-1548*, (Washington: Academy of American Franciscan History, 1979), 134 or.

(6) Zumarragaren gutuna Patxi Urkiagari, Mexicotik 1548ko apirilaren 26n; ikus *Letters and People of the Spanish Indies. Sixteenth Century*, James Lockhart ta Enrique Otte hitzuli ta paratua, (Cambridge: Cambridge University Press, 1976), 207-10 or.

ezer. Honek inkisizioko sekretaritza eman zion 1535n, eta bistan dago zergatik, euskalduna zelako batez ere, bada honelako lanpostuak ezin eman konfiantzakoari izan ezik. Apezpikuaren azken aldera, Legazpik “gau lana” ere egin zuen haren alde, etxe-etxekeo baiziren.

13. Portugaldar bat ere, Domingos Fernandez, bere baratzean lan egiten zuena, ageri da Zumarragaren aixkideen artean.

14. Don Vernardino, untzi jabea zen, baina ez dakit nongoa.

15. Francisco de Ferrera (Herrera) hori Mexicoko erdaldun bat zen baina ez dakit ezer bere emazteaz. Aldi hartan emaztekiak bakarrik ibiltzeari ez zitzaion ongi irizten ta horregatik nahi zuen Zumarragak Otsanda ta andre hura Mexicora batera joatea.

16. Otalora abokata bizkaitarra izango zen agian, baina ordungo beste euskaldun askok bezala, bizimodua Sevillan egiten zuen. Zumarragak hargana ta Agirre abokatarengana jotzen zuen, lege kontuetan laguntza behar zuenean. Honek gutunean diona Durangon eraiki nahi zuen ostatuari dagokio, ta Urtiri komunikatzen dio Otaloraren esku utziko duela arauak jartzea ta legekikoak finkatzea, bada “hark badu ezagutza ta esperientzia lurralde hartako gauzetan”.

17. **URTI ABENDAINO TA MATXIN ARANGUREN** ditugu gutuneko pertsonaia nagusiak. Hau, lekeitiar merkatari aberatsa izanik, 1546n sartu zen apezpikuaren maiordomu ta geroztik hari burukomin asko arindu zizkion, eskatu-ahala diru aurreratzen ziolarik. Matxin gizon taiuzkoa zen noski, bada Zumarragak ahobetez laudatzen du: “halakorik ez dut ezagutu euskaldunen artean eta arrotzen artean ere gutxi”. Apezpikua hil zenean milaka peso zorretan zegoen baina Matxinek ez zuen txistik atera. Zorren orde zedo, Zumarragak berari utzi zizkion zeuzkan gauza guziak, testamenduan aginduz, inork Matxini ez zezaiola konturik eska.

Zumarragak asko maite zituen bizkaitar bi hauek, ta biekin zorretan zegoenez, nolabait ordaintzeko edo, ezkontza bat proposatu zien, Urtiren alaba Otsanda Matxinekin ezkontzekoa. Honek baietz esan zuen baina Urtik alaba bakarra asko maite ta atzerakor zebilen. Horregatik esaten dio Zumarragak gutunean bizi-tokia gertatzen ari direla ezkongaiantzat ta “erantzun beroagoaren zain nengoen... hontaz ez dago dudatzerik, baizik eta begiak itxi ta arin-arin egin”. Hain zuzen, Urtik amor eman ta alaba ez-ezik same bi ere bidali zituen Mexicora, bada, Zumarragak zionez, Durangon baino han edukazio hobea hartuko zuten.

Gutun mamitsua da hau ta gai jakingarri asko dagoz bertan, baina gaurkoan denak ezin azter ta banaka bati helduko diegu printzipalki. Lehenik, Zumarragak hamaseigarren mendeko euskal mundua agerrarazten digula esan behar da. Haren gutunak historiako kuadro biziak bezala

dira, Bizkaiko gizarteaz, ekonomiaz eta Hapsburg inperioan sakanabatuta bizi ziren euskaldunetaz. Informazio horren balio nagusia hontan datza: iturria guztiz euskaldun dela, ta ikuspegia ere. Ez datorkigu erdaldun iturrien bitartez, beste gehienak bezala. Beraz, aparteko informazioa dugu hauxe.

Europa ta Mexico arteko merkatalgoa euskaldun begiekin ikusten zuen hark, ta ez da harritzeko, bada, euskaldun untzijabe, pilotu ta merkatarien artean bizi zen. Ta hori horrela, berri hau ematen digu harri ta belarri: “Honera ekartzen duten asko Bilbotik dator”. Horra bota digun bonba! Orain arte uste genuen Sevillatik pasatzen zela komerzio dena edo gehiena. Bagenekien euskaldunek kontrolatzen zutela Ameriketarako itsas trafikorik gehiena hamaseigarren gizaldian (7). Baina Zumarragak esan arte ez genuen Bilboz halako berri zeatzik, ta ez genekien hain portu inportantea zenik. Horixe gertatzen da sarri euskal historian barna, agiriak palta direlako gure herriak ez duela inportantzirik uste dute idazleek. “Mila gauza izango da Bilbon aski merke, hemen saltzeko”, esaten du Zumarragak, ta merkantzi hori nongoa zen ere gaineratzen du —kanpoko noski— ta hori bagenekien.

Harrigarria dirudi apezpiku honen interesa Urti kontseilatzen duela-rik zer eros ta zer ekar: “Gure herriko gauzekin beintzat ez dukezu galtze handirik”, alegia, burdin, altzairu, tresnak, tab. Mexicoko katreala hasteko dela jarraitzen du —ez zen hasi, halere— ta gauz guzi horiek ondo salduko direla. Indioentzat —bada hauek erdi-biluzik ibil oi ziren— hiru mila ator eskatzen ditu Durangotik, eta aiztoak, zorro ta guzti, baina punta gabeak. Beste gutun batetan ere gai berdinak darabilzki ta Urtiri diotsa hasteko tratuan Arangurenekin, hau gizon prestu ta zuzena baizen eta honek % 80 irabazia beintzat garantizatuko ziola.

Antza, Urtik ez zuen astia galdu ta gauza pilo bat bidali zien Aranguren ta Zumarragari, ta honek aurreko untzietan iritsitakoak aitatzen ditu, hots, liburuxka, kordoi, aulki, kapela, ator, azpiko ator eta eskuzapi. Batzu kondizio onetan heldu zirela dio, besteak ustelak, etab.; ta hontatik ikasten dugu zergatik izan ohi ziren handiak merkatarien irabaziak eta galerak hamaseigarren gizaldian.

Zumarragak berezko merkataria sena zuen, ta apezpiku ona ezezik tratante ona ere bazen. Ta horigaitik bazekien hark dirua erabiltzen. Aldi hartako apezpikuak gizon handiak zirenez, diru asko maneja beharra izan ohi zuten, eta halaxe gure durangar fraideak ere. Bitartean frantziskota-

(7) John LYNCH: *Spain Under the Hapsburgs. Vol. 1: Empire and Absolutism*, (New York, 1964), 165 or. Idazle honen ustez, 1520-80 bitartean % 80 kontrolatzen zuten, gerora gutxiagotuz.

rren probetasunak jai edo... Gai hontaz Zumarragaren biografo guziek huts egin dute. Probea izango zen izpirituz, baina diruaren indarrari ez zion uko egin ez horixe, ta dirua medio bazekien hark Durangoko gorabeherak bere gogora zuzentzen. Senideak izan ziren batez ere diru hartzaileak, halabaina, norberen etxekoei elizako dirutik ematea, ez da izango askok uste duten bezain pekatu handia. Zumarragak fundazio bat eraiki nahi zuen Durangon bere gusasoen omenez ta fraide frantziskotarentzat. Hortaz ari da gutunaren zenbait tokitan. Urti, Patxi Urkiaga ta Gazteluko fraidea zituen lankide bere bizitzako proiekturik handien hau lortzeko. Hiru mila dukat bidali zituen hortarako —Legazpik eraman zituen bildurrez eta ixilean azken milak— baina senideak ez ziren konpondu juiziora jo arte. Alde batetik Antso Larrazabal, ta bestetik Urti, ta gero serorak ere bai. Lehenbiziz Bizkaiko tribunalean ta gero jaunarenarenean. Zorioneko juizioa, bada, berari esker kontserba ziren artxibu ofizialetan Zumarragaren gutunak. Azken epaia seroren alde izan zenez —Urti hila zen— hauei gelditu zitzaaien dirurik gehiena. Liburu bat oso osoa idatz daiteke arlo hontaz, ta gogorik ez zait palta, ta oraingoan hobe izango ez lauskitzea.

Kontuan eduki behar dena da, biografo batek ere ez diela gai hauei heldu, ta zergatik? Benetako Zumarragan ez-baina idealizatuan sinistu nahi dutelako. Miragarria bada ere, bostehun urtetan Zumarragaren euskaldungoa inork ere ez du aztertu, ta beraz hau da gure ordua; izan ere, hori, etxekuok egiteko lana baita. Durangar honen analisatzea bukatzen denean, argi ta garbi ikusiko da nolako erraldoia izan zen. Hamaseigarren gizaldian Mexicon izan zuen eragina gauza bat da, baina Euskal Herriko historian barna hartuko duen inportantzia...! Errez itzalduko ditu hark orain ezagunago diren besteak.